



PARTE-HARTZE PUBLIKORAKO PROZESUARI BURUZKO TXOSTENA  
FORU DEKRETU HAU EGITEKO: FORU DEKRETUA, NAFARROAKO FORU  
KOMUNITATEKO ENPRESA-ENTITATE PUBLIKOEK, FUNDAZIO  
PUBLIKOEK ETA SOZIESTATE PUBLIKOEK ABALAK ETA MAILEGUAK  
EMATEKO BEHARREZKOA DEN NAFARROAKO GOBERNUAREN BAIMENA  
LORTZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUENA.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 7 eta 44. artikuluekin bat, Gobernu Irekiaren Atarian 2018ko ekainaren 12an argitaratu zen Foru Dekretu honetarako proiektua: Foru Dekretua Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak eta maileguak emateko beharrezkoa den Nafarroako Gobernuaren baimena lortzeko prozedura arautzen duena. Epe bat eman zen herritarrek egoki iruditzen zitzaizkien iradokizunak edo gomendioak helaraz zitzaten eta 2018ko uztailaren 18an bukatu zen epe hori.

Iradokizun bakarra jaso da. Sociedad de Desarrollo de Navarra S.L.k aurkeztu du, Corporación Pública Empresarial de Navarra S.L.rekin batera adosturik aurkeztu ere. Hartan proposatzen da proiektuaren 4.2.b) artikulua ordez testu hau ager dadin: "*b) Mailegu kapitalizagarrien kasuan, mailegua emateak automatikoki berekin ekar badezake (baldintza edo mugaren bat betetzeagatik) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren menpeko erakundeek %50etik gorako partaidetza publiko zuzena edo zeharkakoa edukitzea...*".

Iradokizun hori, baldintza edo mugaren bat betetzearen aipamen berariazkoa izan ezik, bidezkoa da mailegu kapitalizagarriaren kontzeptua hasierako testuan baino zabalagoa delako, eta automatismoa eranstearen asmoa da emandako maileguen kapitalizazioak ez dezan sozietate mailegu-emailea, egiaz, sozietate publiko bilakarazi Nafarroako Gobernuaren derrigorrezko baimenik gabe.

Hala ere, automatismo hori sartzearekin batera ezinbestekoa da proiektuari beste xedapen gehigarri bat eranstea, ematearekin batera automatikoki kapitalizatuko ez diren maileguei aplikatuko zaien prozedura arautzeko. Hona hemen:

"Xedapen gehigarri bakarra. Gainerako mailegu kapitalizagarriei eskatu beharreko baimenak.

Ematearekin batera automatikoki kapitalizatuko ez diren maileguak Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute kapitalizatu aurretik, baldin eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren mendeko erakundeek